


# PR-Gi 4001

## Pagoetari bira

**17,4 Km / 6 h 10 min**

### NATURA PARKEETAKO IBILBIDE SAREA

Gipuzkoako Natura Parke bakoitzak bere ibilbide sarea du. Homologatutako eta ondo seinaleztatutako bide hauen bitartez babesgune bakoitzeko intereseko puntu nagusietara gerturatzeko aukera eskaintzen da. Modu horretan natura baliabideen inguruan ezagutza eta errespetua sustatuz. Gipuzkoako Natura Parke ezberdinak, berriz, DSS2016 GRSAREAren bitartez saretuak daude.

### RED DE SENDEROS DE LOS PARQUES NATURALES

Cada Parque Natural de Gipuzkoa alberga su propia red de senderos. A través de estos senderos, homologados y bien balizados, se ofrece la oportunidad de aproximarse a los puntos de interés de cada zona protegida. Promoviendo, de este modo, el conocimiento y el respeto por los recursos naturales. Los distintos Parque Naturales de Gipuzkoa, en cambio, están entretejidos a través de la DSS2016 GRSAREA.




Luzera | Longitud
17,4 km

Desnibela | Desnivel
+865 m / -867 m

### MIDE

| Ingurunea Medio | Ibilbidea Itinerario | Desplazamendua Desplazamiento | Ahalegina Esfuerzo | MIDE ordutegia Horario MIDE | + info MIDE |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 2 | 4 | 6 h 10 min | www.mide.montanasegura.com |
| **Inguruan arriskuak egon daitezke**<br>El medio no está exento de riesgos | **Jarraipena adierazten duten bideak edo seinaleztapena**<br>Sendas o señalización que indica la continuidad | **Mandabideak**<br>Marcha por caminos de herradura | **6 eta 10 ordu arteko ibilaldi jarraia**<br>De 6 a 10 horas de marcha efectiva | (( 112 ))<br>SOS DEIAK | |

### Bide-markak
Señalización

| Ibilbidearen jarraipena | Norabide aldaketa | Norabide okerra |
|---|---|---|
| Continuidad de sendero | Cambio de dirección | Dirección errónea |

### + INFO

Praktika onen dekalogoa
Decálogo de buenas prácticas

www.gipuzkoanatura.eus
Trackak eskuragarri
Tracks disponibles

### Jarraitzeko arauak | Recomendaciones a tener en cuenta

- **Txakurrak beti lotuta eraman.** Los perros deberán ir atados.
- **Saiatu mendira bakarrik ez joaten.** Intenta no ir nunca solo al monte.
- **Abeltzaintza estentsiboko eremu batean zaude. Bidean aurkitzen dituzun langak, txabolen ateak eta abar ez utzi zabalik.** Te encuentras en una zona de uso ganadero extensivo. Cierra las barreras, puertas de cabaña, etc. que te encuentres por el campo.
- **Ez ezazu zaborrik lurperatu edo bota.** No abandones ni entierres la basura.
- **Ez egin surik eta ez bota piztutako zigarrorik.** No hagas fuego ni abandones cigarrillos encendidos.
- **Animaliak larratzen** Animales pastando

** Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA.*

### Legenda
Leyenda

- **Ibilbide hasiera** Inicio de sendero
- **Monolitoa** Monolitos
- **Aisia-lekua** Area recreativa
- **Ikuspegi panoramikoa** Vista panorámica

## PR-Gi 4001

### Pagoetara bira

Pagoetako mendiaren oinera inguratzean, kultur eta natur ondareak sortutako sinbiosia antzeman dezakegu. Baso artean, ikusiko ditugu elur-zuloak, failak eta haginak. Goiko eta beheko larreen antzinako bideetatik, Altzolara bidean, Urola Kostako paisaiaren ikuspegi zabala izango dugu aurrean.

Al pie de la montaña de Pagoeta, rodeándola, observamos la simbiosis entre el patrimonio cultural y natural. Caminando entre bosques, veremos neveros, fallas y tejos. Por los antiguos caminos de pastos altos y bajos, camino de Alzola, tenemos ante nuestros ojos el paisaje de la Costa del Urola.

### Interes puntuak | Puntos de interés

**a**



IKAZKIÑARTETAKO DOLINA: Euri urak eragindako higadurak sortzen ditu dolinak. Hauek erliebe karstikoetan ohikoak diren sakonune geologiko mota berezi bat dira. Inguru honetan inbutu formako zulo bitxiak eratu ditu. Modu honetako sakonuneek izen desberdinak hartzen dituzte: dolinak, torkak, zenoteak, etab. Dolina hitzaren jatorria esloveniarra da. Zuloek tamaina eta sakonera handiagoak hartzen dituztenean, berriz, Osin izenez ezagutzen dira.

DOLINA DE IKAZKIÑARTE: La erosión de las aguas de lluvia crea las dolinas. Estas son un tipo especial de depresión geológica característico de los relieves kársticos. En esta zona se han creado curiosas depresiones con forma de embudo. Las hondonadas de este tipo suelen tener diferentes nombres: dolina, torca, cenote, etc. El origen de la palabra dolina es eslovena. Cuando las oquedades son de un tamaño y profundidad mayor toman el nombre de Sima.

**b**



NEBERAKO LIZARRA: Lurzoruko hutsune bat baliatuz edo aldapa laiotzetan zulo zilindrikoak eraikiz egiten zituzten antzinako hozkailuak dira elur-zuloak. Hor pilatutako elurraren erabilerak ondorengoak izan zitezkeen: odoljarioak moztea, olio tanta batzuekin erreduretan erabiltzea, handituak jaistea, etab.; eta sukaldean, berriz, elikagaiak kontserbatzea, edariak freskatzea edo izozki eta sorbeteak egitea. Gipuzkoan XVII. mendetik ezagutzen dira.

NEBERAKO LIZARRA: Los neveros son los frigoríficos de antaño que se fabricaban aprovechando las hendiduras del suelo o construyendo agujeros cilíndricos en pendientes umbrías. El hielo amontonado en esos lugares podía servir para: rebajar inflamaciones, cortar hemorragias, con unas gotas de aceite para quemaduras, etc.; y en la cocina para conservar alimentos, refrescar bebidas o hacer helados y sorbetes. En Gipuzkoa se conocen desde el S. XVII.

**c**



ELUTSAUNDI: Baso honetan 100 urtetik- eta 30 metrotik gorako pago aleak daude. Hori da gune hau berezi eta ikusgarri egiten duena: oinen adina eta luzera. Pagoek hainbat erabilera izan dituzte mendeetan zehar eta, horren ondorioz, gehienak moztuak edo lepatuak izan dira. Horregatik zaila da ezaugarri hauek dauzkaten hainbeste zuhaitz kokaleku berean ikustea. Euskaraz horrelakoei Pago-lizar deitzen zaie.

ELUTSAUNDI: En este bosque hay ejemplares de haya de más de 100 años y más de 30 metros de altura. Eso es lo que hace especial a este lugar: la edad y la longitud de los pies. Las hayas han tenido diversos usos a través de los siglos y, como consecuencia, la mayoría han sido talados o trasmochados. Por eso es difícil encontrar tantos árboles de esas características en un mismo lugar. En euskara a este tipo de pies se les llama Pago-lizar (Haya-fresno).

**d**



APARTEKO ZUHAITZA: Dendrokronologiaren, kultura- edo paisaia balioaren edo historiaren, aldetik nabarmenak diren zuhaitzak izendatzen dira aparteko zuhaitz moduan. Gipuzkoako kasuan, ezaugarri horietako bat, edo bat baina gehiago, betetzen dituzten zenbait zuhaitz izendatu dira. Horien artean, Pagoetako Natura Parkean dagoen hagin hau. Argazkiko moduko aleak aurrean izanda, ez da harritzekoa antzinako gipuzkoarrek armarrian hiru jarri izana.

ÁRBOL SINGULAR: Los árboles que destacan por su dendrocronología, su valor cultural o paisajístico o su historia son declarados como árboles singulares. En el caso de Gipuzkoa, se han declarado varios árboles que cumplen una o más de esas características. Entre ellos, este tejo presente en el Parque Natural de Pagoeta. Teniendo enfrente ejemplares como el de esta fotografía, no es de extrañar que los antiguos gipuzkoanos pusieran tres en su emblema.


AIAKO UDALA
Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa
Gipuzkoako Mendizale Federazioa